



Ekipoa	Elektrodialisia
Kodea	A-1005
Ingurumen-hobekuntza	loi-kontzentratua eta/edo katioi-kontzentratua berreskuratzea, berrerabiltzeko; eta ur garbia ere berrerabiltzea.
Honetan datza:	<p>Elektrodialisia (ED) mintz bidezko prozesu bat da, hondakin-uretako ioiak mintz erdiiragazkor batetik garraiatzen dituena potentzial elektriko baten eraginpean. Aplikaturako potentzial- gradienteari esker, ioiak mintzen bidez barreiatzen dira, katodoaren edo anodoaren norabidean. Katodoaren eta anodoaren artean, anioiak eta katioiak hautatzen dituzten mintzak jartzen dira txandaka. Anioiek soilik zeharkatzen dituzte anioiak hautatzeko mintzak, eta katioiek soilik zeharkatzen dituzte katioiak hautatzeko mintzak. Horrela, konpartimentuen erdian fluxua kontzentratuta egongo da, eta gainerako konpartimentuetan ioiak deuseztatu egiten dira, eta efluente garbia sortzen da.</p> <p>Hautatzeko gaitasun handia izan behar dute mintz horiek, bai eta elektrizitatea eroateko gaitasun handia ere. Halaber, hantura-indize txikia eta indar mekaniko handia izan behar dituzte. Litekeena da mintzen efizientzia txikiagoa izatea hondakin-uretan solido esekiak edo materia organiko disolbatuak egonez gero. Horrenbestez, litekeena da hondakin-urak aurrez tratatu behar izatea.</p>
Zein sektoretan aplikatu daitekeen	<p>Anioi-kontzentratuak eta/edo katioi-kontzentratuak berreskuratzeke eta berrerabiltzeko aplika daiteke, urak birsortzea eta berrerabiltzea helburu izanez gero, industria-sektore hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elikagaien industria (NACE 10). - Industria grafikoa (NACE 18). - Industria kimikoa (NACE 20). - Industria ez-metalikoa (NACE 23). - Oinarrizko metalen industria (NACE 24). - Gainazalen tratamendua (NACE 25.6). - Ehungintza (NACE 13). <p>Hauek dira elektrodialisiaren aplikazio potentzial garrantzitsuenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ur gazia eta itsasoko ura gezatzea. - Itsasoko ura kontzentratzea.



- | | |
|--|---|
| | <ul style="list-style-type: none">- Seruma desmineralizatzea.- Metalak eta estalketa elektrolitikoko garbiketa-urak berreskuratzea.- Zuntz-uraren purga gezatzea eta hoztea.- Efluente azido erabilietako azidoak eta baseak berreskuratzea.- Ardoa desmineralizatzea.- Azukrea desmineralizatzea. |
|--|---|